

**Gipuzkoako toki erakundeei eta haien menpeko erakundeei eta toki-erakundeen elkarteek antolatutako kultura jarduerak gauzatzeko diru laguntzak.**

## HARTZAILEAK

Kultur jarduerak antolatzen dituzten toki erakundeak eta haien menpeko erakundeak.

Nortasun juridikorik izan ez arren, proiektuak, jarduerak edo portaerak egin baditzakete edo diru-laguntza ematea eragin duen egoeran dauden Toki-erakundeen edo haien mendeko erakundeen elkarteak.

## BALDINTZAK

- Kulturaren alorreko Jaialdiak, jardunaldiak, zikloak, lehiaketak, erakusketak eta arte, historia eta ondare izaerako ospakizunak, baldin eta duten berezitasun, singularitasun, kalitate eta interesarengatik udal maila gainditzen badute eta Gipuzkoako kultur eskaintzari ekarpen garrantzitsua egiten badiote.
- Deialdiaren urte naturalean gauzatzea, (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean).
- Ekonomikoki bideragarria izatea.

## GEHIENEZ 30.000€

### AURKEZTU BEHARREKOA:

- Eskaera orria beteta.
- Diru laguntzaren xede den proiektu, programa edo jardueraren azalpen-txostena.
- Proiektuaren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua. (horretarako aplikazioan atxikitzen den eredu bate).

### BALORAZIOA BI FASETAN:

- **1. fasea:** balioetsiko dira, batetik, entitatearen ezaugarriak eta, bestetik, aurkeztutako programa edo jardueraren zenbateraino egokitzen den deialdi honen xedeetara. 60 puntu arte
  - **2. fasea:** balioetsiko dira aurrekontuaren egokitasuna eta zeharkako irizpideak, besteak beste, hizkuntza ofizialen eta genero berdintasunaren ikuspegiaren erabilera. 40 puntu arte
1. fasean 30 puntu lortu beharko dira 2. fasera igaro ahal izateko, eta gutxienez 60 puntuko balorazioa lortu beharko da bi faseen baturan, proiektua diru-laguntza emateko proposamenean sar dadin.

## KANPO GELDITZEN DIRA

- Beren izaeragatik edo xedeagatik, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jarduketara esparruekin zuzenean zerikusirik ez dutenak.
- Diru laguntza izenduna dutenak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste laguntza deialdi - batzuetan espresuki sartzan direnak edo hobeto egokitzen direnak. Holakotzat jotzen diren eskaerak, deialdi horietara bideratu ahal izango dira.
- Beren izaera edo proiektioagatik, udal esparrukotzat jotzen direnak.
- Aisia eta denbora librearen okupaziora nahiz gazteriari zuzendutakoak.
- Jai programak eta erritu izaerakoak.
- Azoka tematikoen antolaketa.
- Nekazaritza azokak eta gastronomiari lotutako lehiaketak edota jarduerak.

<b>1. FASEA</b>	<b>60</b>
Programaren interesa mapa kulturalaren barruan	20
Programaren kalitatea eta originaltasuna	20
Programaren finkatze-maila	5
Inplikaturako tokiko eta kulturako eragileekin parte hartzea eta koordinatzea	10
Berrikuntza	5
<b>2. FASEA</b>	<b>40</b>
Aurrekontuaren egokitasuna	10
Euskararen presentzia eta erabilera	10
Genero ikuspegia txertatzea	10
Gazteak sartzea	10

## LAGUNTZAREN KOPURUA

- 10.000 biztanletik beherako udalerrietako udalek egitasmo bakar bat aurkeztu ahal izango dute; gastuen aurrekontua 5.000 euro baino gehiagokoa izango da.
- 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietako udalek gehienez bi egitasmo aurkeztu ahal izango dituzte; bakoitzaren gastuen aurrekontua 10.000 euro baino gehiagokoa izango da.
- 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek gehienez hiru egitasmo aurkeztu ahal izango dituzte; bakoitzaren gastuen aurrekontua 10.000 euro baino gehiagokoa izango da.  
**Diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 50a.**

## EPEAK

- **ESKAERAK AURKEZTEKO**

Dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea 28 egun naturalekoa izango da.

**Azken eguna: 2021-05-27**

- **ZURIKETA AURKEZTEKO**

Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

- **ORDAINKETA:**

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 emateko ebazpenarekin batera eta gainerako %40a diruz lagundutako jarduera amaitu ostean.

## TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>)

Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

## BULETINA IRAKURTZEA GOMENDATZEN DUGU:LAGUNTZEN OINARRI OROKORRAK ETA LERRO BAKOITZARENTZAT EGITEN DEN DEIALDIA, BERTAN ZEHAZTEN BAITIRA DETAILA GUZTIAK.

[Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 78.zk., 2021-04-29](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudedekin.

**(+34) 943 113 343 / [kbulegoa@gipuzkoa.eus](mailto:kbulegoa@gipuzkoa.eus) /  
Errege-erregina Katolikoaren kalea, 16 /  
20006 Donostia  
Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00**

**K  
B  
U  
L  
E  
G  
O  
A**



**\*Hitzordua hartzea gomendatzen dugu.**